

Literatura

Elitista... ni?

Inoiz amaitzen ez den eztabaida horietako bat hasi dute azken best-sellerraren kariatara. “Liburu hori ez duk literatura” esan dio batek besteari. Erantzunak eztanda egiteko botoia sakatuko du. “Elitista” hitza aurpegiratu baitio best-sellerraren defendatzaileak lagunari. Gaur egun kulturaz mintzatzean bidezkoa ote da hitz hori erabiltzea, kontuan izanda ia dena inoiz baino eskuragarriago dagoela lehen munduko herritar arruntarentzat?

Gorka Bereziartua

“EZ DA EXISTITZEN, izatez, diferentziarik maila sozial edo intelektualean, Pounden poesia kontsumitzen duen pertsonaren eta polizia-nobelak irakurtzen dituenaren artean. Gutako bakoitza izan liteke bata edo bestea momentu diferenteetan. Aurreneko kasuan, espezializazio altuko kitzikapena bilatuz; bestean, balio kategoria jakin bat biltzeko gai den entretenimendu mota”. Eztabaidak Umberto Ecoren *Apocalittici e integrati* liburuan hartu du lur, eta aurreko esaldi hori irakurrita, ematen du elitismo salaketei kontra egin dienak asalto bat irabazi duela. Azken finean, eztabaidan ari dira baina, ez al ziren ba elkarrekin joan eskolara? Ez al dira biak lizentziatuak? Best-seller irakurleak ez luke inola ere esango laguna baino tontoagoa denik. Eta pobreagoa ez

Zaila da, geroz eta zailago, maila altuko produktuak eta lan arruntagoak desberdintzen, batez ere euskal kulturari

da. Gainera, ezagutzen ditu bera baino maila ekonomiko handiagoak, eta ez zaio iruditzen kultura jasoagoaren jabe direnik. Bere burua konbentzitzen hasi da XIX. mendean baietz, elite aristokratiko txiki baten esku zegoela goi-mailako kultura, baina ez dela hori egungo egoera.

Amore ematekotan dago, baina hurrengo parrafoan begia jarri duenean... “Kontra esan ahalko litzateke, gertatzen denaren eremuan nik goza dezakedala berdin Poundekin edo polizia-nobelarekin; aldiz, C mailako bankuko kontable batek, hainbat motibo tarteko (horietako asko ez erremediorik gabeak, baina egungo egoeran gaindiezinak) polizia-nobelaz bakarrik goza dezakeela, eta beraz kultur arloan ainguratze egoeran dagoela”. Klaro, hasi da pentsatzen, ez da gaitasun edo ikasketa maila-

ren araberako zerbait izango, baina lagunak, best-sellerrak baztertzeko dituen horrek, badauka *denbora* kulturari eskaintzeko, aukeraketa egiteko, horretan lan egiten du eta; nik ez. Ez naiz jarriko lanetik neka-neka eginda bueltatzean Horazio irakurtzen. Eta hori nik, gazte samarra izanda hezkuntza pribilegiatua jaso dudanez. Zer esanik ez erretretatzen hurbil dagoen askok. Ez, ondo egin du lagunari elitismoa leporatzen: ez dago denen esku arte batzuez gozatu ahal izatea. Ez diruagatik agian, baina bai denboragatik. Eta denborak urrea balio du.

Ustezko elitistak badaki zenbat kobratzen duen bere



lanagatik; badaki, gutxi gora-behera, lagunaren soldata zein den ere. Eta pentsatu du denbora urrea izango dela, bai; baina urrea, batez ere horixe dela, urrea, bere gordintasun materialean. Ordea, konstruktiboa izate aldera, eta norgehiagokatik ondorioen bat ateratzeko zera esan du: arazo politiko bati buruz ari direla, hezkuntzaren eta lan antolamenduaren bidez alda daitekeena, borondatea izanez gero. Baina bitartean, berak irakurri eta gozatu dezakeela best-seller batekin, normalean bilatzen duenaz bestelako plazera hartu, betiere jakinda zein motatako produktua ari den kontsumitzen. Eta aldiz, best-seller irakurleak zailago daukala gauza sofistikatuagoekin gozatzeko; are gehiago, nobela arin horiek maila handiko produktutzat baldin badauzka –hala saldu badizkiote–, eta kontrakoa dioenari elitismoa leporatuta dena konpontzen badu.

Dena dela, eta horretan bat etorri dira biak, zaila da, geroz eta zailago, mota bateko produktuak eta bestekoak desberdintzen, batez ere euskal kulturan. Ze, erdal merkatuan, saldua eta azkar kontsumitua izateko prestatutako liburua azaletik identifika daiteke: jendea deika ari da, nola deitzen dien tabernako neoizko argiak bi eztabaidalariei. Aldiz, euskaraz, produkzio txikiagoagatik-edo, argitaletxeek ez dituzte hain argi desberdintzen lan finenak zakarragoetatik. Problema hori, kritika-gintza sendo batek konponduko luke kalitate altukoak identifikatuz; edo marketinak, salgarrienak, arinak, kontsumo errazagoak zein diren argi utziz. Bitartean, makina bat eztabaida izango dituzte bi adiskideek aurrerantzean ere, goizeko ordu txikietara arte, kultura konpontzeko ahalegin hutsalean. **n**



**BERTSOLARI
TXAPELKETA NAGUSIA**
www.txapelketanagusia.eu

**Azaroak 21, larunbata
17:30ean
Jai-Alai pilotalekua
GERNIKA**

**Azaroak 22, igandea
17:30ean
Anaitasuna pabilioia
IRUÑEA**

Euskal Herriko Bertsolari Elkartea

Laguntzailea:

argia